



AKELARRE - N. Basterretxea



EUSKAL KULTURAREKIN BAT GATOZ

Instituzio-konpromezu gisa hartu dugu xedetzat gure herri honen izpirituaren agerpideei, nortasun eta identitate bakana damaiguten kultur adierazpenei, indar osoz eutsi eta laguntzea.


Eta arreta berezi bat jarriz, ahal dugun indar guztiarekin, gure kulturaren adierazpenetarik gorena den euskararen garapenean.

KONTA EZAZU GUREKIN



BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa

Lege gordailua: BI-85-98



MAHATSERRIKO ALDIZKARIA

2000ko urtarrilak 18. zkia.
125 pzta.



MATSERRIAN ZUTUNIK
DIRAUTEN BASERRIAK (I)



“Sei Izar” berriro ere
garaile

**Asapala Kultur
Elkartea**
*“Guk uste dugu horrelako
gauza bat behar zela auzoan”*




Asapala Kultur
elkarteko presidentea-
rekin, Benito Fiz, hitz
egiten dugu



2000 Efectua Presoekin solidarioak Zorro-ren Komikia

betikoak

SANTUTXU



Jon Etxebarrik itxitako argazkia.

Santutxu izeneko eleiza edo baseleiza honek emon eutson auzoari izena. Jon Etxebarriren esanetan, Bizkaiko hainbat baseleiza, Santutxu izenagaz ezetuten dira gaur be, adibidez, Baselizara noa esateko, Santutxura noa esan. Baseleiza honetan San Frantziskito gurtuten zan, eta baseleiza bota ostean, ondoan eraiki dan eleiza barriari be, santu honen izena emon jako, San Frantziskito.

Argazkia 1960ko hamarkadan egon daiteke atarata eta eleizan sartzen ikusten da jendea. Santutxu, gaur egungo Santutxu eta Juan de Gardezabal kaleen artean egoan, "Viviendas de Vizcaya" etxe blokeak dagozen lekuan. Baseleiza, 1974. urtean bota eben etxebizitzak egiteko.

Eleizaren atzeko aldean Parroko Unceta edo Tabakalera izeneko etxeak ikusten dira.

Roman, San Frantziskitoko gaur eguneko parrokoak esan deuskun legez, baseleiza hau Bilbo inguruko erromesen garrantzizko topagunea izan zen.

ARGITARATZAILEA:
Batana Batu Kultur Elkartea

ERREDAKZIOA:
Iturriaga 55, 1. ezk.
Bilbo - 48004
Tfnoa: 94 473 54 48
e-posta:
berton@mail.com

KORDINATZAILEA:
Unai Cuevas

ERREDAKZIOA:
Arrate Diez, Joana
Martínez, Joana
Etxebarria, Irune
Berro, Iratxe Ruiz,
Leire Altamira,
Erdoitza Martínez

ARGAZKIAK:
Iñigo Azkona eta
Xabier Herrera

**DISEINUA ETA MAKE-
TATIOA:**

Iñaki Berastegi,
Joseba Barreneitxea,
Benito Fiz

KOLABORATZAILEAK:
Jaione Letamendia,
Itxaso Perez, Alber-
to Ugarte, Iñaki
Gaminde, Igor M.
de Vidales, Santu-
txuko Ber-tso Esko-
la, Igor Zorrozueta,
Iñaki Aurrekoetxea,
Joseba Zelaia.

**ADMINISTRAZIOA ETA
PUBLIZITATEA:**
Koldo Urrutikoe-
txea, Joxe Garcia

LEGE GORDAILUA:
Bi-85-98

ALE KOPURUA:
1.000

A U R K I B I D E A



▶ Betikoak	2	▶ Mahatsberriak	16
▶ Iritzia	4	▶ Inkesta	19
▶ Presoekin Solidarioak	5	▶ Bidean Gora, Mendi Ibilbideak	21
▶ Hileko argazkia	7	▶ Bota ba!, Sei Izar Krosa	22
▶ Begoña eta euskerea	8	▶ Bideak, Gaizka Salazar	24
▶ Berton dugu! 2000 Efektua	10	▶ Badatoz, Agenda eta horoskopoa	26
▶ Elkarriketa, Asapala Kultur Elkartea	12	▶ Begizorrotza, Komikia	27

Zer, ikusi dozue lenengo pajinako erretratue? Ta ez nozue ikusi? Ez? Naturala, ez dot urten eta. Ze, erretratue ataten joan ziren bestiek eta ni honeik Asapalakoak emoneustien pintxotxo bat jaten lotu nintzen, ta pintxoa ona zegoala, ta beste bat, ta beste bat, ta tragutxu bat, ta atzenien erretratutik kanpo lotu nintzen.


Ze, egidxe esanta, ez neuen jakin ondo erretratue zertako zan, ta pintxoak jaten nagoala, hango nes-kato bateri pregunteu neutzen, ta ha esplikatzen hasi yaten... zelan egin gure deurien hemengo euskaldunentzako soziedade bat, edo elkarte bat, ia ke ni Bertonetik famosoa egin naz eta hemengo naz, eta euskaldune naz, ba, aber gure baneuen erretratuen urten.

Ta ni pozik, ze, erretratuetan urtetie beti gustau yat. Horixe da nik Bertonekoakaz dekoten pena bakarra, inoiz ez daustiela erretraturik atara. Iguel motza nazelako, edo iguel hain leku txikidxe emoten deustielez, ba, erretratue bere atara bier badeurie... tire!

Ta kontue da, hareik Asapalakoak konbentzidu egin dostiela, ze, esan ostien euskaldunek juntau ein bier dittusela, ta neuri beti gustatu yata jentiegaz juntetie, ta euskaldunek badirez, hobeto, ta ganera, lantzien behin konbidetan badostie pintxo bat jaten ta ardauxu bat hartuten asko hobeto. Asike aber zeuek bere juntetan bazarie gugez. Hori bai, juntoperonorebuelto, gero!

IRITZIA

BEGOÑAKO ATXURI TOKI-IZENAREN ESANGURAREN INGURUAN



Begoñako lurraldearen zati garrantzitsuenetako bat Artagan mendiaren mazelan beheara doa Bilboko errekaraino, Ibaizabaleraino. Bada, zati horri Atxuri deritxo. Izen horrek, euskal toki-izen horrek, ageri-ageriko eraketa dau: alde batera, 'atx' ['(h)aitz'] sustraia dago; bestera, barriz, 'uri'. Modu horretara, haizaren menpean dagoan uria ikusten dogu Atxuri toki-izenaren barruan. 'Uri' berba ulertu behar dogu, pertsonak hartzen dauazan guneez. Izan bere, geografiaren alde-tik dauan esangura hartu behar dogu, ez, ostera, geroago berba horrek hartuko eban esangura historiko-politikoan. Horren eretxean, esan behar da, Bizkaiko Foru Zuzenbidearen ikuspegitik, 'uribildu' eta 'eleizateak' bereizten dirala alkarrengandik. Urribilduak Logroño Forua erabilten eban, eleizateak, barriz, Bizkaiko Foru Zuzenbidea. Hori dala eta, gaur egun ezagun dogun Bilbo haundi honetan, Logroño Forua eta 1881az gero Kode Zibila erabilten izan da, eta Begoñako eleizatean, Abandoko eta Deustuko eleizateetan legez, Bizkaiko Foru Zuzenbidea. Atxurin, horrenbestez, Bizkaiko Foru Zuzenbidea erabilten izan da 1959. urteko eraldaketa egin arte.

Eta Atxuri toki-izenagaz, erreka ondoan egoan auzoari eritxon; auzo hori Bilboko uribildutik kanpo egoan, ha eratu zanean. Auzo horrek toki izentadua izan dau beti: Haragitzearen komentu-eleiza. Gaur egun, hari deustola, Bizkaiko Eleizbarrutiaren musèo ederra dago, bisitatzea merezi dauan bitxia dogu hori. Zoritxarrez, guk euskaldunok urrineko bidajeak egiten doguz, hurreko osterak ahaztuta.

Eta aurkintza horretan Donibaneen, Joan Santuen, antxinako eleizea egoan; eleiza hori Uriko Ospitale Santuari eutsola egoan, eta berton hasten da aldeari izena emoten deutson kalea: Atxuri. Kale horrek pitxarrak egiten ebezanen kaleak aldamenetan izten dauz alde batera; beste aldera, barriz, lehengo geltokia eta burdinbidea izten dauz. Eta, Olleriak ezkerretara eta burdinbidea eskumetara lagata, Atxuri kaleak gora igoten dau Mirafloresko etorbide aldapatsugaz bat egin arte.

GOTZON LOBERA REVILLA

Euskara Sustatzeko Zuzendari Nagusia (Kultura eta Sails - Bizkaiko Foru Aldundia).



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

Bizkaiko Foru Aldundiko
Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

hartu berton etxean!!!

Bete txarteltxo hau eta bidali hona: Berton aldizkaria. Iturriaga 55, 1. ezkerre, 48004 Bilbo

Urtebeteko harpidetza izango duzu: 11 zenbaki, 1000 pezetatan.

Izena:
Abizenak:
Kalea: Zenbakia: Solairua:
Herria: Herrialdea: Posta Kodea:
Telefonoa:
Bankua:
Kontu zenbakia (20 digito): ____ / ____ / ____ / ____

Sinadura

bertin



SOLIDARIOAK, SEVILLATIK MAHATSERRIRA

⇒ Irene Berro

Ezagunak dira solidarioek burututako ekintzak eta haien aldarrikapenak. Giralduaz jantzi eta Sevillan ospatutako atletismoko mundialetan "Euskal Presoak Euskal-Herrira" lemapean dantzan azaldu zirenetik aski ezagunak zaizkigu denoi.

Arestian esan bezala, Sevillatik Mahatserrirako erreleboa hartu eta euskal presoak herriratu arte solidario talde anitz sortu da Bilbon. Santutxun ere badugu bat. Iragandako gabonetan, abenduaren hogeita lauan hain zuzen ere, Santutxutik igarotzen den errepide nagusiaren mozketan burutu zuena.

Bilbo mailako ekintza izan zen hau. Bilboko sarrera guztiak moztea zen helburua eta horretarako hiriko sei leku desberdinetan ordu berean ekintza zehatzak burutu zituzten. Toki hauetarako bat, esan bezala, Mahatserrirako errepideetako bat izan zen eta horretarako hogeita hamarren bat solidario ibili zen lanean.

Olentzerok badaki herri honetan ez gaudela denok, Eskal-Herriko seme-alaba asko estatu espainiarreko zein frantseseko presondegiatan daudela. Horren aurka protestatzeko asmoz porlanez beteriko kupel handi batzuetara kateatu zen, baita zubitik kate batez zintzilikatu ere. Artean solidarioek bengala koloretsuekin trafikoa desbideratzen zuten, bere nahia etengabe banderekin plazaratuz.

Ekintza arratsaldeko bostak laurden gutxitan hasi eta iluntzeko hamarrak alderarte luzatu zen. Ertzaintzaren presentzia solidarioen lagunena bezain ugaria izan zen nahiz eta hauek olentzeroak kupeletatik askatzeko eta trafikoa ahal bezain hobekien bideratzeko ezer gutxi egin zuten.

Solidarioek jakinarazi ziguten bezala "Ertzaintza iritsi zenetik trafikoa okerrera jo zuen. Hauek guk ipinitako trafikoa seinaleak kendu zituzten eta trafikoa paso egin zuten. Era honetan iristen

D A T U G U R R A



Sei olentzero kuplei kateatuta zazpigarren bat zubitik eskegita dagoen bitartean.

ziren kotxe guztiak zer egin ez zekitela geratzen ziren".

Aipatzekoa da ere, ekintzan parte hartu zuten guztiak onik atera zirela eta ez zela inongo atxilotetarik izan, Ertzaintzak zenbait momentutan basakeria agerian utzi zuen arren.

Bestalde Santutxun sortu den talde honek trafiko

desbideratze honi jarraipena emateko asmoa du. Abenduaren hogeita laukoa ekintza kate baten hasiera baino ez da, solidarioek ez dituztelako esku zuriak soilik, hauek gorputz eta aurpegi zuria darabilte legeak eta herriak dioena betearazteko; EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA!!

Solidarioak trafiko desbideratzeaz gain ekintza azaltzen zuten panfletoak banatu zituzten bertatik igarotzen ziren kotxeen artean.



Aintzineko Begoña eleizatea izan zana beti egoten izan da baserri giroari eta baserriarren bizi-moduari lotuta, halan da ze, oraindino ere badaukoguz Begoña baserriaren haren arrastoak, eta ez edozelakoak gainera. Aspaldiko garaietan (ez hain aspaldikoetan gure nagusien ikuspegitik) Begoñan baserriak nagusi izan baziran ere gaur egun eraikin handiak eta etxe-bizitza pilatuak nongura daukuguz eta Mahatserriak lehen eukan irudi bukolikoa galdu egin dau. Hala ere aintzineko izaera ha akordura ekarteko eta gogoan euki daigun gura baeben lez hirurogei baserri inguru lotzen jakuz oraindino Begoña osoan. Mahatserrian zutik irauten daben baserri honek danak

Garaizar zeritzon baserriko seme dan Anton Larrazabalek bildu dauz eta berari esker, batzuk behintzat, Bertonen ikusi ahal izango doguz. Antonek 1997. urtean bukatu eban hau beharrau eta atzen urte biotan berak bilduko hamabost bat baserri bota dabez. Honek adierazoten deusku zelako abiaduraz joaten jakuzan gure baserriak, holan jarraituez gero urte gitxitan danak galduko jakuz. Ea lan honek balio dauen danon ondarea diran baserri honek galdu ez daitezkan eta geuk bere, Arestik esan eban lez, urte asko barru esan daikegun:

ni hilen naiz / nire arima galduko da / baina nire aitaren etxea zutik iraunen du.

Bukatuteko Anton Larrazabali eskerrak emon behar deusoguz, batetik Mahatserriko historiarako hain inportanteak diran datu honek batuten egin dauen behar handiagaitik (Bilboko eta Bizkaiko erakundeetatik ezelako laguntzarik jaso gabe gainera) eta bestetik Bertonen argitaratzeko baimena emon deuskuelako. Hona ba Mahatserriko egungo baserriak:

Begoña eta Euskerea

Anton Larrazabal

MATSERRIAN ZUTUNIK DIRAUTEN BASERRIAK (I)

1. Arbolantxa Gane (Arbolantxa)

Santamarina sanatoriaren inguruan dago. Izena Arbolantxa bidearen amaieran egotearen emon eutzen. Etxebarri udalerriaz dago mugan eta herri horren barruan kokatzen da Arbolantxa gane ondoan dagoan Larrabe baserria. Baserri honek etxe-bizitza bi daukoz eta onetan Roke eta Ignacio Legina bizi izan ziran. Gaur egunean Mungitik etorriko Calistra Aiarza izan zanaren erraina bizi da bertan.



2. Garayalde (Arbolantxa bide)

Arbolantxa bidean dagoan baserri onetan orain dala hile batzuk hil zan Pedro Legina, Makala, bizi izan zan.



3. Atxeta (Arbolantxa bide)

Hau baserrion Manu Legina Gorostiola bizi izan zan, berau itzain edo karretero ospetsua izan zan eta bere

idiakaz inguruko baserri askotako baratzak landuten ebazan. Beronen semea dan Manu Legina Zarate trikitrilaria da eta Guillermin Etxebarria panderojoleagaz eta Igorreko Txilibrin albokariagaz batera Bizkaiko herri gehienak korritu dauz jotzen. Baten ere TVE ko Prado del Rey estudioetan jo izan eben.



4. Goiko Etxe (Arbolantxa bide)

Etxe-bizitza biko baserria dogu hau eta bertan Daniel Mentxakatorre eta Fidel Elorriagaren familiak bizi ziran.



5. Etxe-zuri (Zubi Siko bide)

Baserri honetan Faustino Legina eta bere senideak bizi ziran, geroago onen alaba izan zan Carmen Legina eta Tomas Lanzagorta senar-emazteak. Begoñako txakolindegia ospetsuak eta ezagunak ziran garaietan hau inportanteenetarikoak izan zan.



6. Zubero Azkarai-goikoa (Azkarai bide)

Zubero familia bizi da bertan. Garai batean baserri honetan Begoña osoan oso ezagunak ziran zezen sementalak egon ziran, honek zezenok sano inportanteak izan ziran Mahatserriko aziendentzat.



7. Etxe-txiker (Azkarai bide)

Gaur egun baserri onetan Boni Garmendia eta bere senideak bizi dira, leen Juan Garmendia, Boniren aita, bizi izan zan.



8. Azkaray-bekoa (Azkarai bide)

Azkarai bidean dagoan baserri onetan Justo Aurrekoetxeak nekazaritzan erabilten diran tresnak konpanduten ebazan.



9. Pantoa (Arbolantxa bide)

Pantoa izeneko baserri hau Arbolantxa bidean dago eta bertan Indalecio Gorostiola eta beronen semeak Maximo, Atanasio eta Tiburcio bizi ziran.



10. Tellerie (Arbolantxa bide)

Bere izenak esaten deuskun legez emoten dau bertan aspaldian teilera bat egon zala. Baserria Arbolantxa bidetik nahiko urrin, beheko alderuntz dago. Bertan Ibarretxe familia bizi izan zan eta geroago Mateo Gandiaga eta onen semea: Ramon.



11. Irumineta (Arbolantxa bide)

Hiru etxe-bizitza daukoan baserria dogu hau. Baten Jose Bilbao Etxarte, Txilibiren semea eta urte askotan esne biltzaile izan dana bizi da. Beste etxe-bizitzan Manuel Ibarretxe (Tellerie baserriko semea) eta Rosa Bilbao bizi ziran. Hirugarren etxean Gabriel Bilbao zanaren senideak bizi dira egun.

E G O N E R A Z

E G O N E R A Z

2000.URTEA mundua hankaz gora?



☞ **Leire Altamira Herreros**

Aspalditik genbiltzan hedabide zein kalean entzuten 2000. urterako sarrerak ondorio edo eragin kaltegarriak euki ahal zituela, eta baita urte honetan bizitzeak aldaketa ugari ekarriko zizkigula. Baina, azkenik, Mahatserrian lez munduko gainontzeko tokietan ere hainbeste itxarotako datan sartu gara. Eta zer izan da aurkitu duguna? Betikoa, besterik gabe.

Zenbait hilabetetan zehar jasan dugun bonbardaketa informatiboaren ondoren, konprobatu ahal izan dugu zertan geratu diren azkenaldi honetan egin diren frogak, "efektu itxura" izenekoak eta mundu osoko sistema informatikoen egokitzapenean inbertitu izan diren 50 billoi pezetak: Gabon Zaharreko gau osoan

lanean egon behar izan zuten aireportu, komunikazio sistema, garraio publiko, zentral nuklear, finantza mundu, osasun zerbitzu eta beste hainbat arloetako langile askok. Gehiengoek ez zuten uste arazorik agertuko zirenik, sistema informatikoetan dena "kontrolpean" baitzeukaten. Baina, hala ere, erlojua hamabiak joteko zegoenean, efektu madarikatu horrek sor zitzakeen arazoak zirela eta, nerbioak dantzaka eukiko zituen baten batek. Ordu klabea pasatuta langile asko gogoratu zen euren nagusiez, azken finean, tradizio diren hamabi mahats horiek euren lanpostuetan jan behar izan zituztelako errefortzu modura badaezpada ere, momentu horietan familia zein lagunekin egon beharrean.


Milenioaren kontu honek diru kantitate handiak mugitu izan ditu, batez ere mikroelektronika eta informatika industrietan, zeintzuen diru sarrerak igo baino ez diren egin azken hilabeteotan. "Efektu 2000" z ezagutzen duguna ez litzateke gertatu izan sistema informatikoen chip horietan urte berri honetara arazorik gabe igarotzea ahalbidetuko liguken digito bat sartu izan balute. Hau da, orain dela 30 urtetik hona, ordenagailuetan eta beste sistema askotan azkeneko bi zifrak bakarrik erabili izan dira unibertsal-

ki urteak kodetzeko (memoria informatikoa aurrezteagaitik, oso garestia zelako orain dela urte gutxirarte); horregaitik uste zen 1999.etik 2000.era igarotzean ordenagailu horiek eta bi digitu bakarreko datak erabiltzen dituzten sistema guztiek ulertuko zutela hasi den urte berria 00 urtea dela, 1900. urtea alegia. Honela, bere garaian batzuek izandako "ezuste" hau orain gizarte osoa ari da ordaintzen, baina badirudi hauxe dela gaur egungo ekonomiaren araua: irabaziak edo sarrerak pribatuak dira, baina galerak publikoak. Eta iskanbila guzti hau 2000. urteak dituen hiru zeroek euki ahal zituzten eraginengandik, hauxe hain gauza arbitrarioa bada ere.

Aurrekoa gutxi balitz, hasi berri dugun urte honekin batera munduaren amaiera ere etorriko zela esan zuten batzuek, Paco Rabannek besteak beste. Beraz, egia da data batzuen zenbakiak berezitasun batzuk dituzteneko sinismenek, egonkortasun askorik ez duten arren, jende askoren ulermena lainotu egin dutela. Irrazionaltasunez betetako adierazpenak, alar-

ma soziala eta nolabaiteko "histeria orokorra" izan dira azken egunotan antzeman izan diren ezaugarrietako batzuk, beraz. Baina eskerrak adierazpen hauek Mahatserrian behintzat ez zituztela jarraitzaile askorik izan: Gabon Zaharrean auzo hauetako taberna inguruetan sumatu ahal izan zena jai giro alaia zelako eta ez zegoelako gau hartan mundua amaituko zela pentsatzerik.

Beraz, 2000. urte honek bere etorreran aurrekoan bezala aurkitu gaitu mahatsorriok, eta ez dugu inolako arazo, eragin, kalte edo oztoporik izan auzoko banku, supermerkatu, telefono sistema, denda zein etxeko tresnetan. Agian urte berrirako sarrerak gudan izan duen eragin orokorretako batzuk Urte Berri egunean gazte eta ez hain gaztetxoek izan zuten ajea eta euren poltsikoetako diru zein aurrezki kutxetako kontuak sufritutako jaitsiera izan ziren. Honi ere "efektu 2000" baderitzogu, ba, bai, "kaotiko, arazotsu eta ondorio latzez betetakoa" izan da urte honek egin digun harrera.





BENITO FIZ

Benito Fiz santutxutarrak hamahiru urte daramatza AEKn lanean, eta gainera Euskalerriko Euskara Elkarte eta Herri Aldizkariaren Topaguneko zuzendaritza batzordeko kidea da. Guzti hau gutxi balitz, Asapala Kultur elkarteko presidentea da eta berarekin berbetan aritu gara elkarte honen norabide berriari buruz.

*Testoa: Arrate Diez
Argazkiak: Iñigo Azkona*

Berton: Noiz eta ze asmorekin sortu zenuten Asapala kultur elkarteak?
Benito Fiz: Orain dela sei zazpi urte sortu zen nahiz eta elkarte legal modura duela bost urte baino ez. Santutxun EKBk antolatu zituen jardunaldi batzuk eta AEKn zebiltzan batzuk (ikasleak eta irakasleak) ibili ginen han. Ekintza hauetatik fruitu asko ateratzen ez zirela ikusirik, bildu eta zeozer egiteko beharra zegoela ikusi genuen. Bagenekien Santutxun euskalgintzan hutsune handi bat zegoela. AEK bazegoen, militantzia kontuak ere... baina hortik aurrera ez zegoen ezer eta guk gabezia hori betetzeko asmoz sortu genuen elkarte 1993. urtean.

Azalduiguzu zer den Asapala Kultur elkarteak.
Asapala kultur elkarteak Euskal Txokoa bezela eza gutzen duzue askok baina Euskal Txokoa berez ez da ezer. Sasoi baten erabili genuen izen bat baino ez da, 95 etik aurrera. Iralan, Zorrotzan eta leku gehiagotan zeuden antzerako egiturek izen horre-

kin funtzionatzen zuten eta udaletxetik sostengu ekonomiko bat jasotzen zuten. Gu ere eskubide hori izatearren hasi ginen izen hori erabiltzen. Orain berriz atzera bota dugu izen hori. Talde bat bezela funtzionatzen genuela ikusten genuen eta horrela denbora luzez ez genuen jarraitu nahi; guk itxi eta bertan behera geratuko baitzen dena. Ez genuen ziurtatzen guk landutako arlo hori inork jarraituko zuenik.

Azken batean euskaldunoi mugak dira gutxien komeni zazikigunak, berauek auzokoak badira ere

Zein da orain Asapalari eman nahi diozuen norabide berria?
Badago eredu bat Euskalerrian oso ezaguna: Euskara Elkarteena; Arrasateko AED, Durangoko Berbaro... Eta guk uste dugu horrelako gauza bat behar zela auzoan. Eta gainera, beste pausu bat eman dugu, Santutxuko mugetatik irten, eta inguruetako auzoetako euskaltzaleei ere topagunea eskaini gura diegu. Bertonen izpirituak ku-tsatu egin gaitu, eta Mahatsorrien izpiritu hori berreskuratzeke apustua egin dugu geuk ere. Azken batean euskaldunoi mugak dira gutxien komeni zazikigunak, berauek auzokoak badira ere.




Asapalakoak

Beste aldetik, Bilbo oso handia da, oso sakabanaturik dago dena eta horregatik pentsatzen dugu auzoetan ahalegin handi bat egin behar dela, auzoetatik hasi, hurretik euskaltzaleei topagunak eskaintzen. Gero, seguruenik, Bilbo mailako kontuetan hasi beharko da pentsatzen, izan ere, Bilbo osorako proiektuen falta ikaragarria dago, bai ofizialak, bai herri dinamikatik sortuak. Hau guztia, duela bi urte egin genuen hausnarketa izan zen eta hortik etorri da bazkidetza kanpainaren ideia. Ikusten genuen, momentuz, euskaltzaleen talde-arekiko harremana aldatu behar zela. Jendeari talde edo elkarte-an parte hartzeko beste eredu bat eman nahi diegu, bazkide izatea. Hauek sostengua eman behar diote elkarteari, guretzat oso inportantea da sostengu soziala. Euskalgintzan alor asko landu behar dira. Gizarte mailan euskararen normalizazioa: Kultura, aisialdia, ekonomia eta komertzioaren inguruan erabile-ra normalizatzea etab. Hauekiko

konpromezu pertsonala izatea da bazkidearen lehenengo lana eta hurrengo elkarteari sostengu ekonomiko minimo bat ematea. Eta elkarteak bazkideari egitura sendoa eta bertoko euskaldunekin harremana egiteko modua eman behar dio, behar ditugun proiektuak hausnartu, garatu eta egiteko.

Adin, sexu, lanbide eta ideologia desberdineko jendea bildu nahi izan dugu

Zenbat bazkide behar dira elkarte bat osatzeko?
Momentu honetan Asapalako 30 bazkide inguru ditu eta guk osatu nahi dugun elkarte aurrera eraman ahal izateko ehunetik gora bazkide uste dugu behar direla. Eta horixe da kanpainia



honen helburua. Elkartearen izena zabaldu, prestigio minimo bat hartu, eta gero euskaldunentzako erreferente bihurtzea.

Kanpaina hau gauzatzeko eskola eta ikastolekin hitz egin duzue?

Kanpaina euskaltzaleengana ailegatzea nahi dugu printzipioz eta eskola eta ikastolekin kontatu beharko da baina ez erakunde ofizial modura. Kontatu beharko da badakigulako hezkuntza munduan gure helburuarekin interesa izan dezakeen jendea dagoelako. Euskaltegiekin ere kontatuko da, euskalgintzaren inguruan lanean dabiltzan erakundeekin, alderdi desberdinekin, kultur elkarrekin, eta gehien bat, auzoko euskaltzaleekin ...

Hitz egin kanpainaren nondik norakoei buruz.

Kanpaina hau Bizkaia mailan egingo da. Gu, Euskara Elkarte modura sartuta gaude Euskalerriko Euskara Elkarte Herri Aldizkarien topagunean. Bertan, Bizkaia mailan salbuespen batzuk izan ezik hutsune handia zegoela ikusi zen eta hau indartu behar zela erabaki genuen; izan ere, Bizkaia Euskal Herri mailan estrategikoki puntu inportantea da. Bai jendearen aldetik, bai ekonomiaren aldetik Bizkaia oso garrantzitsua da eta euskararen normalizazioan aurrera egiteko, lurralde honetan egin behar da ezinbestean. Badaude momentu honetan Bizkaian euskara

talde asko guk orain arte funtzionatu dugun bezala aurrera jarraitzen dutenak. Baina talde soilak dira, bost, hamar... lagun biltzen dira eta ez dute bazkideen egiturarik, zuzendaritza batzorderik etab. Pertsona hauek ahal dutena egiten dute eta hauek nekatzen direnean taldea bertan behera gelditzen da. Horrela ordura arte eginiko guztiari ez zaio jarraipenik ematen, eta askotan abiapuntura bueltatzen da. Arrazoi honexegatik elkarrekin potenteez beharra ikusten zen eta kanpaina hau hastea erabaki genuen.

Kanpaina argazki batekin hasiko duzue ezta?

Bai, argazkiarekin panfletu eta kartelak egingo dira eta herri bakoitzean bertako jende famatu edo adierazgarriena agertuko da. Hamaika elkarrekin daude apuntatuta kanpaina honetan. Behin argazkia eginda bazkideetza kanpaina azaltzen da, zer den euskara elkarrekin bat adieraziz. Argazkia kanpainaren lehenengo pausua baino ez da, honi jarraipena emango zaio.

Argazkian agertzen den jendea bertokoa izatea edo bertan bizitzea eta euskaltzale edo-eta euskalduna izatea gura dugu. Adin, sexu, lanbide eta ideologia desberdineko jendea bildu nahi izan dugu. Ahalik eta aniztasun gehien isladatzea nahi izan dugu, jendeak ikus dezan euskaldun mota asko dagoela eta denak batu egiten direla proiektu honen inguruan. Ez da lagun konkretu batzuen proiektu ezta helburua.

A
K
K
A
R
K
A
K
A
R
K
A

GALDERA LABURRAK

- Amets bat: Momentu honetan, 12 ordu lo egitea
- Filme bat: Gizon trankila
- Liburu bat: Paradox erregea (Pio Baroja)
- Abesti bat: Mikel Laboaren "Gure bazterrak"
- Janari bat: Tripakalloak
- Hiria ala herria? Segun noiz eta zertarako
- Mendia ala hondartza? Mendia
- Fulbola ala eskupilota? Berdin zait
- Gitarra ala panderoa? Gitarra

**AIZU IRAKURLE!
HEMEN DITUZU
PORTADAKO
ARGAZKIAN
AGERTZEN DIREN
ZENBAITEK
BIDALITAKO MEZUAK.**

Josune Azurmendi: Euskera erabili ahalik eta leku gehienetan.

Oihana Munduate: Auzoaren beharra gehien bat, gure artean erabilera zabaltzea da eta gero esparru desberdinetan euskaraz hitz egiteko aukera edukitzea.

Urtzi Urrutikoetxea: Hitz egiten segitu, irakurtzen ere eta euskal kulturaren dauden produktu guztiak, azken finean erderazkoak bezain onak direla, eta guzti horietara hurbiltzen animatu.

Irene Berro: Santutxu ingurutik ibiltzen garen gazte gehienak dakigu euskaraz, nahiz eta sarritan nabaritu ez. Gure aldetik konpromezu gehiago hartu beharko genukeela uste dut.

Txelu Etxebarria: Begoñan euskera galdu egin zan. Ni euskaldun jaio nintzan, baina gero jendea hona meatzera lanera etorri zanean erdelduen artean bizi ginen eta guk euskeraz egiten genuelako jendeak barre egiten eban. Dena den euskeraren alde beti egin behar da ahalegina.



Zeurekin gaude

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA
Giza Eskubideen eta Justiziarikiko Lanbidezarako Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL
Dirección de Derechos Humanos y Cooperación con la Justicia



Bertoko euskaltzaleon topagunea eta elkarrekin egin guran gabiltza

Zeuk ere euskararen ardura badaukazu, batu gurera!

Hemen gagoz:
Iturriaga 55, 1. Ezkerra
Tfnoa. : 944735448
E-posta: asapala@eusnet.org

A
K
K
A
R
K
A

MAHATSBERRIAK

Mahatserrian azkenokaz izan direnak

Ekialdeko aldaeraren lanak Apirilean bukatuko dira

Bilboko Ekialdeko aldaeraren lanek azken urteotan arazo ugari izan dituzte. Lanak, 1996ko abenduan esleitu ziren Txurdinaga-Otxarkoagako auzokideek eskatutako aldaketa batzuk onartu ondoren. Obrak, gehienez, 30 hilabetetan luzatu zitezkeen, eta ondorioz, pasa den urteko ekainean bukatu. Baina eraikitzaileek atzerapena eguraldi txarrari egotzi diote eta beraz, beste hilabete batzuetako atzerapena izango dute eta apirilaren bukaerarako prest egongo ei dira.

Atzerapen hau dela eta Bizkaiko Foru Aldundiak bere haserrea adierazi du. Bestalde, gogoratu beharra dago, Otxarkoaga eta Txurdinagako aldaera 2 kilometrotako errepidea izango dela eta 4 karril izango dituela. Errepide honek, Santutxu paretik pasatzen den N-634 eta Santo Domingo gaina lotuko ditu. Bestetik, A-8 eta Asuako harana lotuko ditu ere, eta aireportuarekiko komunikazio zuzena suposatuko du.



Ekialdeko aldaerako obrek, hasieratik arazo ugari izan dituzte.

OTXARKOAGAKO UDALTEGIA BERRITZEA AKORDATU DUTE

Udaleko hiritarren harremaneko departamenduak eta Otxarkoagako taldeen koordinadorak lortutako akordioari esker udalategia berritu egingo dute. Dagoeneko, eraikinaren gainaldea konpondurik dago; bai teilatua, baita leihoak ere. Berritze hauetaz gain, beste hainbat burutu beharko dira udalategi honetan: igogailu bat jarri behar da, instalazio guztiak margotu behar dira eta kanpoaldeko fatxadari hezetasun filtrazioak ekiditzeko produktua eman behar zaio. Bestetik, aldagelak berrerratu behar dira (iturgintza osoa berritzea eta ur beroaren instalazio egokia jartzea) eta gimnasioko zoluaren egitura berrikusi behar da. Lortutako akordioaren ondorioz, berrikuntza egokia egiteko, udaleko tekniko eta arkitektoak pasa izan dira proiektu bat lantzeko eta kontratazio mahaira pasatu ahal izateko.



BEGOÑAKO AUZOKIDEEN KEXAK

Begoñako auzokideek, Zumalakarregi etorbidea estali edo lurperatu dezatela eskatzen dute. Kotxeek daramaten abiadura dela eta, errepide arriskutsutzat jotzen dute eta Leioako errepidean egin zen antzeko obra eratzea eskatzen dute. Auzo elkartetik adierazi zutenenez, errepidea estaltzearekin Santutxu edota Txurdinaga bezalako auzoen sarbideetarako oxigenazioa lortuko litzateke. Aldaketa hauetaz gain, etorbidearen alde biatara espaloien konponketa ere eskatu dute. Eztabaida sortarazi duen errepide hau, Bizkaiko Foru Aldundiaren jabetzakoa da eta Begoñako auzokideen elkartetik Bilboko udalaren esku uztea egokiena eta zuzenena litzateke. Honela, begoñatarren ustez, arazoa arinago konponduko litzateke.

Otxarkoagako udalategian oraindik konponketa ugari geratzen dira.

2000ko urtarrilak- 18. zkia.

INFORMAZIO PANTAILAK AUTOBUS GELTOKIETAN

Abenduaren bukaeran autobusen ordutegia eta itxarrote denborari buruzko informazioa eskaintzen duen pantaila ezarri zen errekaldean. Honetaz gain, Bilboko beste 15 geltokitan pantaila hauek ezarriko dituzte; horien artean Mahatserriko Otxarkoaga auzoan. Sistema berri hau, Udaleko zirkulazio guneak aurrera eramane duen Jupiter programaren barnean kokatzen da. Erabilpen errazeko pantaila hauek, gurgil baten eta botoi biren bidez maneiatzen dira. Pantailoak, autobusel dituzten antenen bidez bidalitako informazioa jasoko dute.



Otsailerako Otxarkoagako geltokiak ere informazio pantaila izango du.

ETXEBIZITZEN ERAIKUNTZA MINA DEL MORRON

Eusko Jaurlaritzak hurrengo urteetan eraikiko dituen etxebizitza gehienak Mina del Morron kokatuko dira. Ingurune honetan, 1.122 etxebizitza eraikiko dira eta horietariko 625 Visesa elkarte publikoak bultzatuko ditu. Lehenengo bi promozioak (orotara 384 etxebizitza) nahiz eta azken hilabeteetan emanak izan eraikitzen hasiak dira. Bi promozio hauei buruzko informazioa Juan de Ajuriaguerra kaleko 19. zenbakian kokatutako bulegoetan eskainiko da. Aurten, 90 etxebizitza sozial eta babes ofizialeko 152 etxebizitzaren lanak hasiko ditu Visesak. Pisuek, 1 eta 4 logela bitartekoak izango dira eta 8,2 eta 14,9 milioi tarrean balioko dute.



Mina del Morro ikastetxearen parean eraikiko dira etxebizitzak.

GOSE GREBA SOLOKOETXEN

Euskal presoen eskubideak eta Euskal Herrian ireki den prozesu politikoaren partehartze zuzena izan dezaten exijitzeko astebeteko gose greba burutu zen Solokoetxen. Gose greba Euskal Herriko herrialde ezberdinetan egin zen eta orotara 726 lagunek parte hartu zuten. Horietariko 175 lagun Solokoetxen dagoen Karmelo ikastolan egon ziren. Gose grebalariek, Xabier Arzalluzen bisita izan zuten eta galdera ezberdinak luzatu zituzten. Gabon zahar egunean, bertan bildutakoek eta hurbildu zirenek brindisa egin zuten. Hori bai, urarekin.

OTXARKOAGAKO KOMISARIA ITXI EGINGO DUTE GAUEZ

Otxarkoagako Udaltzaingoaren komisaria itxi egingo dute gauez Las Corteseko komisaria indartzeko asmoz. Otxarkoagako komisariako agente kopuru osoaren erdia Las Cortesera eramango dituzte. Udalean oposizioan dauden alderdiak (PP eta PSE-EE) erabaki honen aurka agertu dira eta bi komisarietan poli-

zia gehiagoren presentzia eskatu dute. Honetaz gain, aipatu komisaria biak egun osoa zabalik egotea eskatu dute. PSE-EE-k, Bilboko Udaleko plenuan Otxarkoagako komisariaren errendimendua mantentzeko mozioa aurkeztu du.

EMANKOR-EK EGOITZA ALDATU DU


Orain dela 10 urte Otxarkoagako jende talde bat bildu eta lana bilatzeko zailtasunak zituzten gazteak hezitzen hasi ziren. Handik eta hona, Emankor sortu zutenek instituzio publikoekin lan egin dute. Orain, tokia behar dutenez, bere egoitza Fernando Jiménez kaleko 14. zenbakira aldatu dute. Hasiera batean, Otxarkoagan lanbide-heziketa ematen zuten eta denborarekin sortzen joan diren programa berrietara gehitu dira. Honela, inguruko behartsuenetzako eskuharmen soziohezitzaileko taldea eratu dute. Euren jardura, 3. Barrutiko (Txurdinaga-Otxarkoaga) Oinarriko Zerbitzu Sozialaren barruan kokatzen da.

ERRIKARIK ARAKIA

ERRIKARIK ARAKIA

ANBULANTZIARI ORDU ETA ERDI ITXARON ONDOREN GIZON BAT BIHOTZKOAK JOTA HIL ZEN

Pasa den Azaroan, 53 urteko Txurdinagako gizon bat bihotzekoak jota hil zen anbulantziari ordu eta erdi itxaroten egon ondoren. Osasun zerbitzukoak gizona zuzperten saiatu ziren baina Basurton ingresatu orduko hil egin zen. Osakidetzatik aitortu zuten, berehalako laguntza izan balu onik aterako litzatekeen. Senideek salaketa jarri dute behin eta berriro '112'-ra deitu ondoren anbulantzia ordu eta erdiko atzerapenarekin heldu baitzelako; eta gainera, heldu zenerako gaixoa- ren egoera atzerazinezkoa zelako. Osakidetzak, bere aldetik, gertatutakoa argitzeko espe- diente informatiboa ireki du eta hala balegokio neurriak hartuko lituzke.



Aitor Mazok birus baten papera antzeztu zuen.

"BIRUS" ARRIAGA ANTZOKIAN

Txirene konpainiak Arriaga Antzokian "Birus" lana aurkeztu zuen. Obra honetan, Aitor Mazo santutxutarrak ordenagailu bateko birusaren papera antzeztu zuen eta berarekin batera Patxo Telleria eta Asier Hormaza aritu ziren. Lander Iglesiasek zuzentzen duen Txirene konpa- niak, Otsailaren 24rako obra berberaren euskarazko aurkezpena egingo du. Unai Iturriaga bertsolaria lan honen euskarazko bertsioa prestatzen ari da.

GIZON BATEK BERE ARREBA HIL ZUEN BOLUETAN

Bolueta auzoko Bilbo-Galdakao errepidean kokatuta dagoen bloke bateko etxebizitza batean 57 urteko gizon batek bere arreba hil zuen. Aurretik, bion ama zen 92 urteko emakumea hil zen (berezko heriotzaren ondorioz). Arreba hil ondoren, ihes egin zuen gizonak baina hurrengo egunean etxeko ataritik ateratzen zen unean Ertzaintzak atxilotu egin zuen. Auzokideen ara- bera, gizonak arazo psikologikoak zituen.

ZURI BALTZA LIDERGOAN

Santutxuko Zuri Baltza xake taldea Euskal Ligako lider jarri da Iruñako Orvina taldeari 1-3 irabazi ostean. Zuri Baltzak 17 punturekin lehen postua betetzen du; bigar- ren, Donostiako Gros/IKE dago 16 punturekin eta hirugarren Bilboko Peña Rey Ardid 14,5 punturekin. Ihar- dunaldi gutxi geratzen dira liga bukatzeko eta talde gehienek datorren denboraldian estreinatuko den bigar- ren mailara ez jaisteko borrokatuko dute.

ZURI-BALTZA MALLORCAN

Santutxuko Zuri-baltza xake taldea, Mallorcan jokatu- tako Espainiako txapelketan aritu zen pasa den hilabe- tean. Xake talde honetatik adierazi digutenez, zirkuns- tantziatzko taldea aurkeztu zuten irlan eta 30 taldetatik hamaseigarren geratu ziren. Taldeko bi jokalarri onenak bertan ez egoteak lehenengo bosten artean sartzea era- gotzi zien, Zuri-baltzetik aitortu digutenez. Hala ere, lortutako emaitzarekin nahiko pozik agertu ziren. Bes- talde, gogoratu beharra dago xakeko Euskal Liga hasi dela jada, eta talde santutxutarra sailkapenaren goikal- dean kokaturik dagoela.

SANTUTXUK UGAOKO TORNEOA IRABAZI


Santutxu Hockey Taldeak, Gabonetako torneoan Uga- ori 7-0 irabazi ostean bere nagusitasuna agerian utzi zuen. Ugaoko taldeak, anfitrioi izan arren, ezin izan zuen ezer egin talde santutxuarra gainditzeko. Ipar Ligan hirugarren doan Santutxu H.T.-k txapelketa era- bat domeinatu zuen; ez zuen golik jaso eta finalerdian Urdanetari irabazi zion. Beste finalerdian, Ugaoko tal- deak ezustekoa eman zuen Gasteizko Aurrerari 4-3 irab- azi ondoren.

ZER ESKATZEN DIOZU 2000. URTEARI?



IKER
-Santutxu-

"Zorionsua izatea"



GAINKO
-Santutxu-

"Juerga eta jai gehiago"



UNAI
-Santutxu-

"Bizimodu ona eta... dirua!!"



MARISA
-Santutxu-

"Zoriontasuna guztien- tzat"



VICENTE
-Alonsotegi-

"Guztiok nahi dugu- na: bake justu bat"



PETRI
-Santutxu-

"Beno..., lana aurki- tzea ondo legoke"



EUFEMIO
-Santutxu-

"Osasuna..., ez dela gutxi"



NESKA
-Santutxu-

"Lepoko korrea estU hAUU kentzea eta bikotea AUUrkitzea"



jo ta ke
Otxarkoaga
euskaldundu arte!
Pa... Yak baditu alternatibak
demokratikoak noski!!

berton



MAHATSERRIKO
ALDIZKARI

Urtebeteko harpidetza izango duzu:
11 zenbaki, 1000 pezetatan.

hartu berton etxean!!!

Bete txarteltxo hau eta bidali hona: Berton aldizkaria. Iturriaga 55, 1. ezkerre,
48004 Bilbo

Urtebeteko harpidetza izango duzu: 11 zenbaki, 1000 pezetatan.


Izena:
 Abizenak: Zenbakia: Solairua:
 Kalea: Herrialdea: Posta Kodea:
 Herria:
 Telefonoa:
 Bankua:
 Kontu zenbakia (20 digito): ____ / ____ / ____

Sinadura

Telleta - Arangatxak (915m.) Abeziatik

Izarra herritik Zuazo de Kuartango-ra abiatuz, laster eskuin albotik irteten den errepidetik joanoo gara "Abezia" auzara heltzeko, hirigunean aska luze baten ondoan eta erreka aurrean utzi genuen hotxea (A).

Bartolome Deuna-ren baseliza eskuin aldean utzi, eta errepikagailurantz doan harrizko pistatik hasiRo dugu igoera. ErrepiRageilora heldu baino hirarehun bat metro lehenago ezh_rraldetik hiru bide irteten dira biragune batetan (B). Erdi-koa hartuz oso erosoki igongo gara sapalda edo lautada batetara sartzeko, hemendik aurrez aurre ikusiko ditugu "Arangatxak gailurreko zuhaitzak, etorri garen pistatik jarraituko dugu zulo handi bat ikusi arte, orain bidebanatze batetan eshuineko bidea hartuz eta zuloa ezker aldean utziz "Arangatxa"-ko zuhaitz artean (pagoak) sartuko gara. Agergune batetan alanbrezia inguratuz "Fortuna" (C) izeneko urputzua aurkitu behar dugu, urputzu alboan aska luze bat dago, etorritako pistak zuzen jarraitzen duen arren, guk ezkerretara doana hartuko dugu, (harlauza batetan gorritz margoztutako gezi bat agertzen da), pista honetatik pagadia zeharkatu eta irteterakoan beste pista batekin egingo dugu topo (lehentxoago bazterrean dagoen harri batetan beste gezi bat ikusiko dugu), orain ezkerretara joango gara pistatik eta hirurehun metrotara pagadia bukatzarekoan pista utzi eta ezkerretara joango gara landa zehar, beti pagadi albotik, geikaldera heltzean pista bat aurkituko dugu eta bertan bi "Kairn"(D) ikusiko ditugu, hauek jarraituz aurkituko dugu tontorra ehun metrotara, (915 m.), txartel hutxa ipuru tartean dagoenez ez da argi ikusten.



Igoera osoa ordu bat eta berrogei minutu.

Bidean aurkitu genuen artzai batek ondoko hau adierazi zigun: mendikatea "Gibijo" izenez ezagutzen dutela, alderdia "Arangatxak" eta txartel hutxa dagoen tokia "Telleta". Txartel kutxan "Arangatxak" izena agertzen da.

"Fortuna" putzutik hogeitun minututara aintzinako otsotegi eder bat aurkitzen da, ikusi nahi duenak datorrena egin behar du.

Putzurarte ekarritako pistatik zuzen jarraituz, hamar bat minututan agergune haundi batetara irtetzen garenean harresi bat ikusiko dugu ezker aldean, bera jarraituz hobeto eskuinaldetik, beste hamar minututan otsotegian bertan aurkituko gara.

Ikasi ditugun zuhaitz motak: 600-900 m. -LIZARRA-PAGOA-AMETZA-ARTEA. 700-900 m. -HARITZA-IPURUA-AMETZA-URRITZA.



"SEI IZAR" BERRIRO ERE GARAILLE

↻ **Unai Cuevas**
Argazkiak: **Iñigo Azkona**

"Sei Izar" krossaren XXII. edizioan Jon Salvador eta Carmen Gonzalez gailendu ziren arren, kross bera izan zen garaile nagusia. Aurtan, iazko parte hartzea mantentzea lortu izan da eta 850 korrikalari horiek eman diote garaipena Santutxuko Urtarrilaren 6ko krossari. Honek, argi eta garbi uzten du kross herrikoi honek onarpen ona duela Mahatserritarren artean, nahiz eta aurtan helmuga inguruan korrikalariak txalotzen jende gutxiago egon. Aurtengo edizioa lotientzat egokiagoa izan zen, umeen zein nagusiagoen lasterketen hasiera, iazkoarekin konparatuz, ordu erdi atzeratu baitzen. Eguraldia, bestalde, iazkoaren oso antzekoa izan zen, eguzkia eta tenperatura epela aipagarri izan baitziren. Lasterketak, iazkoak bezala, 7,5 kilometroko luzera izan zuen eta Jon Salvadorrek 22 minutu eta 47 segundu behar izan zituen ibilbidea betetzeko. Carmen Gonzalezek, aldiz, 27 minutu eta 36 segundu. Aipatzekoa da, biek, aurreko urteko edizioko irabazleek baino denbora gehiago behar izan zutela. Ibilbideari dagokionez, aldaketaren bat nabaritu zen: ez zen heldu Santutxu kalearen amaieraraino eta ondoren errotondatik behera jaitsi Mina del Morrorantz (jakin dugunez udaltzainen akatsa); eta Txurdinagako parkean egindako ibilbidea luzatu egin zen. Helmugan, ibilbidea bukatu zuten guztiek Santutxuko Familia Elkarteak emandako kamiseta (iazkoa baino dotoreagoa) eta botilatxo bat ur jaso zuten. Jon Salvadorrek, aste berean lasterketa ezberdinetan parte hartu ondoren, ibilbidea gogorra egin zitzaioa aipatu zuen. Bestetik, Carmen Gonzalez, iazko garaipena errepikatu ondoren oso pozik azadu zen helmugan. Korrikalarien artean, Maria Angeles Martinezek aipamen berezia merezi du. Emakume hau beteranoena izanik, 34 minutu azpitiko denbora eginez gurutzatu zuen helmuga. Honetaz gain, urtero-urtero kross herrikoi honetan ikusten dugu eta lasterketari nolabaiteko berezitasuna ematen dio. Aurtan ere, 2.000. urtea izanik eta ditxosozko efektuaren gora-beherak egonik, antolakuntzaren lana txalotzekoa izan da eta kross herrikoi honek duen garrantzia agerian geratu da. Berriro.

SAILKAPENAK

SENIOR (GIZONEZKOAK)

- 1. Jon Salvador 22:47
- 2. Jon Robles 22:58
- 3. Mikel Fernandez de Gamboa 23:08
- 4. Jon Castro 23:46
- 5. Jon Ander Bilbao 23:50

SENIOR (EMAKUMEZKOAK)


- 1. Carmen Gonzalez 27:36
- 2. Rosa Natalia Dominguez 29:02

BETERANOAK (GIZONEZKOAK)


- 1. Iñaki Mujika 24:40
- 2. Juan Noriega 25:20
- 3. Eduardo Gastón 25:33

BETERANOAK (EMAKUMEZKOAK)


- 1. Ana de Miguel 31:05
- 2. Maria Angeles Martinez 34:00



Jon Salvador lehenengoa izan zen



Mikel Fdz. de Gamboa 3. postua lortu zuen



Aurtengo edizioko bi argazki



"Musika da nere bizitza"

FITXA

Izena: Gaizka

Abizena: Salazar

Jaioterria: Bilbo

Prestakuntza: 9 urte perkusioa ikasten kontserbatorioan

Orainarteko lanak:

Suzko Itzalak, Ein2gu, Frik eta The Rabbit Hardy



Mahatserrian musikariak ere baditugu, eta ez edonolakoak gainera. Hauxe dugu Gaizka Salazarren kasua, Barakaldoko eskola batean musika irakaslea izateaz gain beste hainbat proiektutan parte hartzen duen gaztea. Ezagutu nahi?

Joana Martínez Ortueta

Berton: Noiz hasi zinen musika munduan?

Gaizka: Gurasoek solfeora apuntatu ninduten txikitant, baina duela bederatzita urte hasi nintzen gehien bat perkusioarekin. Institutuan talde bat osatzeko aukera eman zigutenean Suzko Itzalak jaio zen, eta eurekin hasi nintzen bateria jotzen.

Lehenago esan duzu musika dela zure mundua, baina betidanik amets izan duzu talde baten egoitea?

Beno... Nik etxean beti entzun izan dut musika, batez ere nere anaia nagusiek jarritakoa. Eta hori musika ikasketekin konpaginatu... Esan daiteke hori dela txikitatik nahi izan dudana eta etorkizunean ere egin nahi dudana; argi daukat eta argi neukan.

Eta orain arte, ze proiektutan hartu duzu parte?

Esan bezala, Suzko Itzalak izan zen nire lehenengo taldea. Gerora Ein2Gurekin maketa pare bat grabatu genituen eta, horrez gain, kontserbatorioko ikasketetan eta hango kontzertuetan ibili naiz buru-belarri.

Eta orain, zer duzu esku artean?

Bi taldetan ari naiz bateria jotzen: Frik eta The Rabbit Hardy. Azken honekin CD bat atera dugu duela gutxi, eta Frikek ere orain atera behar du bere lehen diska. Bitartean kontzertuak egiten jarraitzen dugu, noski, baina gustura nabil. Horrez gain "Noé-ren Arka" operan - euskaraz egiten den lehenengo aldia da hau-

lanean nabil perkusionista bezala: xilofonoa, bonboa, platoak, kaja... guzti hori. Pozik nabil, esperientzia berria eta beste musika mota bat delako. Gainera Durangon abenduan eginiko bi paseek euki zuten harrera ona ikusita, beste leku batzuetara ere ateratzeko asmoa dugu, apirilaren 1ean Arriaga antzokian egongo gara, adibidez.

Zer nolako helburuak dituzu 2000. urterako?

Lehendabizi kontserbatorioko aurtengo kursoa ondo prestatu nahi dut eta taldeekin aurrera jarraitzeko asmoa daukat, noski. Horrez gain apirilean badaude Euskadiko Gazte Orkestarako probak, eta sartzea zaila bada ere saiatuko gara, ilusio hori badago behintzat. Baina 2000. urtean zein 2001an gauza da jotzea eta gustura egotea.

Publikoak nahi izan duzuen moduan erantzun dizue?

Beno, denetarik dago. Gaur egun Euskal Herrian jendea talde ezagunen kontzertuetara baino ez da joaten, oso zail dago talde berrientzat, beti egon da txarto eta berdin jarraitzen du. Dena dela, kontzertu on bat egin eta jendea dagoenean oso gustura irteten gara; normalean jendeak ondo erantzun du.

Zer sentitu zenuen lehen aldiz eskenatoki batera igo zinenean? Eta orain?

Lehenengo aldia institutuko aretoan izan zen eta pixka

bat lotsatu nintzen. Baina benetako eskenatoki batera Santutxun igo nintzen lehenengoz, EH Sukarra eta Ehun Kilorekin. Sentsazioa oso ona da, urduritasuna, "akojono" apur bat ere... Orain berriz, kilika hori apur bat galdu dut. Beti sentitzen da zer bait (gainera kontzertu on bat egiteko beharrezko iruditzen zait) baina denborarekin ohitu eta beldur hori kentzen zoaz.

Azken aldian badirudi ingelesez abesteko joera nagusitu dela. Zer deritzozu horri?


Perfekto. Guk, adibidez, The Rabbit Hardy taldean ingelesez kantatzen dugu, nahiz eta guztiok euskaldunak izan. Gauza da musika egitea eta gozatzea, segun eta bakoitza nola espresatzen den egokien hizkuntza batean edo bestean abestuko du; letrak ez ulertzeak ez du esan nahi ezin zaizunik talde hori gustatu.

Nola ikusten duzu euskal musikaren etorkizuna?


Mugimendua badago: gero eta talde gehiago sortzen dira, gogo handiekin... Hala ere gehienak estilo beretik jotzen dute eta, nire ustez, beste musika mota batzuei ere begiratu behar zaie, esaterako, jazz edo blues-a. Dena den Euskal Herrian badago jende oso ona, baina ez dutenez talde famaturik eta musika landuagoa egiten dutenez, jende gutxiagora heltzen dira, baina badute bere txispa.

Orduan ze interbide gelditzen zaizue talde txikiei?













Euskadi Gaztea edota Villa de Bilbao bezalako lehiaketak aukera bat dira, baina gu eskarmentatuta gaude jadanik: segun eta epaimahaia nortzuk osatzen duten talde bat edo bestea hautatuko dute. Beraz, balio duen bakarra lokalean gogor lan egin eta kontzertuak ematea da. Zerbait grabatzean disketeek interesa badute, primeran, eta bestela ere aurrera jarraitu behar da. Horren fruitua lehenago edo beranduago, baina beti heltzen da.



Gaur egun Euskal Herrian jendea talde ezagunen kontzertuetara baino ez da joaten; oso zaila da talde berrientzat



horoskopoa

-  **Aries:** martxoak 21 - apirilak 20ra.
Urte berriarekin aukera berriak helduko zaizkizu. Ez itzazu alperrik galdu!!
-  **Taurus:** apirilak 21 - maiatzak 20ra.
Gripeak lur jota utzi zaituela? Lasai, hobera egin-
duzu laister.
-  **Gemini:** maiatzaren 21etik ekainaren 20ra.
Loteria eta kinieletan gastatu duzun diru guztia
aurreztu izan bazenu, urtarrileko aldapa leunagoa
izango litzateke.
-  **Cancer:** ekainaren 21etik uztailaren 20ra.
Zeren zain zaude zure ametsetako neska/mutila-
rengana hurbiltzeko? Lotsa gutxiago, astroak zure
alde dituzu eta.
-  **Leo:** uztailaren 21etik abuztuaren 23ra.
Lasaiago hartu behar dituzu gauzak. Badakizu,
ekaitzaren ostean barea dator beti.
-  **Virgo:** abuztuaren 24tik irailaren 23ra.
Zer gertatu da urte hasieran hartutako erabakiekin?
Jadanik datorren urterako utzi al dituzu?
-  **Libra:** irailaren 24tik urriaren 23ra.
Ez al zara oraindik azterketak prestatzen hasi?
Animo, merezi du eta.
-  **Scorpius:** urriaren 24tik azaroaren 23ra.
Zertan zabilta? Inguruko guztiak nahastuta ditu-
zu.
-  **Sagittarius:** azaroaren 24tik abenduaren 23ra.
Irribarre horrekin pertsonarik tristeena ere alaituko
zenuke. Segi horrela!
-  **Capricornius:** abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra.
Beste urtebetetze bat pasatu zaizu, ez al da ume-
keriak uzteko garaia?
-  **Aquarius:** urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra.
Kontuz beherapenekin, poltsikoak utzik eta armai-
ria txorakeriez beteta amaitu gura ez baduzu
behintzat.
-  **Piscis:** otsailaren 19tik martxoaren 20ra.
Oraindik ideia berarekin bueltaka? Erabaki ezazu
behingoz, erotuko zara bestela!

A D A T O Z I !

agenda

- Urtarrilak 26:**
- Arriaga Antzokian antzerkia: "Tricycle 20". 20,00tan.
- Urtarrilak 27:**
- Arriaga Antzokian antzerkia: "Tricycle 20". 20,00tan.
- Barrainkua Kultur Etxean Rafael Albertiren omenezko
poema musikalen errezitaldia. 19,30tan.
- Euskalduna Jauregian Euskadiko Orkestra Sinfonikoa.
Mozart eta Reger-en obrak. 20,00tan.
- Urtarrilak 28:**
- Arriaga Antzokian antzerkia: "Tricycle 20". 20,00tan
- Euskalduna Jauregian Opera: "Der Rosenkavalier".R.
Strauss. ABAO. 20,00tan.
- Urtarrilak 29:**
- Arriaga Antzokian antzerkia: "Tricycle 20". 19,30/22,30.
- Bilborock-en Emakumeen Bideak Zirkuitoan antzerkia:
Hamaika: "Lisistrata".20,00tan.
- Urtarrilak 30:**
- Arriaga Antzokian antzerkia: "Tricycle 20". 19,00tan.
- Bilborock-en haurrentzako programazioa: Trokolo Teatroa:
"Tantaz-Tanta". 12,00tan.
- Urtarrilak 31:**
- Bilborock-en Bilbo zinea. 20,30tan.
- Euskalduna Jauregian kontzertua: Stuttgart-Heinrich Schiff-
ko Irrati Orkestra. Mendelson eta Mahler-en lanak. 20,00tan.

HITZALDIAK:

- Urtarrilak 26:
- Bilboko Arte Eder Museoa bodegoiari buruzko konferentzia
zikloaren barnean: "Bodegoiak eta bodegoia duten pinturak.
Argibide terminologiko, tipologiko eta esanguratsuak". Juan
Ramón Triadó. 20,00tan.


ERAKUSKETA GELAK:

- Bilbao Arte-n 15etik aurrera: Juan Moro. Grabatua eta seri-
grafia.
- Barrainkua Kultur Etxean 10tik 28ra bitartean: Ramón Flo-
res, Marraskia eta ziritxoak.
- BBK-ren erakusketa gelan 17tik aurrera: "La ventana en el
Arte". Kolektiboa (Tapiés, Appel, Chagall, Matisse,
Mason...).
- BBV-ren erakusketa gelan "La pintura rusa del S. XIX en la
galería Tretiakov de Moscú".
- Errekalde Aretoa: Jean-Michel Othoniel. Eskultura, perfo-
mance, bideoa...
- Foru artxiboan "Los Dinosaurios y El País Vasco". Panel
didaktikoak eta objektuak.

BESTERIK:

- Otsailak 13:**
- Boluetako Eguzki Lorea mendi taldearekin elurretara irteera:
Alto Campoo edo Valdezcaray-ra. Informazio gehiago asteaz-
ken eta ostegunetan 19,30tatik 21,00ak bitartean Begoñako
udaltegian (Txurdinagako kiroldegiaren alboan).
- Otsailak 3: San Blas. Ez ahaztu kordela!
- Otsailak 5: Agate Deuna. Atera zaitetz kalera abesten, maki-
la eta guzti!
- Otsailak 14: Maiteminduen eguna. Zuk dakizunari larrosatxo
bat oparitu.

Jostai Luak



E G I N Z O R R O T Z A